

Getxo Hurbil

2025
II. Edizioa

Premios al Comercio Getxotarra
Getxoko Merkataritza Sariak

GETXO HURBIL SARIEN II. EDIZIOA OSPATU DUGU

Ekimen honen bidez, merkataritza sare getxotarra osatzen duten merkataritza establezimenduak eta zerbitzu pertsonalen establezimenduak aitortu, sustatu eta ikusarazi nahi dira.

DROGERIA LURRINGINTZA JOSÉ



Ana Salazar
Jesús Salazar
Guillermo Panera

LA LATXA



Almudena
Esteban

Udalerriko hiru merkataritza elkarteak, Algortako Dendak, Getxo Enpresa eta Romo Bizirik, Merkataritza Ganberako ordezkari batekin eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Behatokiko ordezkari batekin batera, saritutako negozioak aukeratzeaz arduratu den epaimahaian parte hartu dute.

Bigarren deialdi honetan, 49 hautagai jaso dira. Epaimahaiak azterketa lan handia egin eta 6 kategoriei sariak ematea ebatzi zuen.

SUAN DENDA



Borja
Zubizarreta

LINDAU TEJIDOS



Oriente Enriquez
José Rodolfo
Santamaría

Sari banaketa
**otsailaren 5ean
ospatu zen
Muxikebarrin.**

CICLOS OLABARRIETA



Mikel
Atxaerandio
Eneko Suaga

KALA



Jaione Aguirre
Itziar Aguirre
Iratxe Aguirre

ZORIONAK

gainerako sektorearekin batera, tokiko garapen ekonomikoaren motorra diren, eta, herritarren eta bisitarien zerbitzura dagoen eskaintza zabalarekin, Getxo hiri lehiakorragoa, atseginagoa eta gozagarriagoa egiten laguntzen duten negozio guztiei.

¡ZORIONAK SARIDUN GUZTIEI!

TRADIZIOA ETA IBILBIDEA

DROGERIA LURRINGINTZA JOSÉ - Amistad 12

Drogeria Lurringintza José familia negozioa da, 1953an José Salazarrek sortua, gero negozioa Ana eta Txus bere seme alabek izan zuten, erretiroa hartu zuten arte. 70 urte baino gehiagoz lurringintzako eta drogeriako produktuak saltzen aritu dira, bezero guztiak mimo handiz tratatuz. Eta 2020an negozioa transmititu bazen ere, Drogeria eta Lurringintza Josék esentzia berari eusten dio.



MERKATARITZA SORTU BERRIA - EKINTZAIETZA

LA LATXA - Torrene 5

La Latxa gaztan espezializatutako denda gourmet bat da, bezeroei aparteko produktuak eskaintzearen alde egiten duena, kalitate oneneko produktua aurkitzeko ere bidaiatuz. Baina, mimoz aukeratutako gazta ugari eskaintzeaz gain, ardo, garagardo, txokolate edo ogi ugari ere eskaintzen ditu. - @La_Latxa

360° IRAUNKORTASUNA

SUAN DENDA - Particular de Club 2

Dendara iristen den produktu bakoitzaren bizi-zikloa zabaltzeko apustu garbia egiten duen denda da **Suan Denda**. Km0-ko artikulua zeinen artean biniloak, diskoak, liburuak, filmak, kaseteak, komikiak edota tokiko artistek egindako irudi txikiak aurki daitezke. - @suan_denda



BERRIKUNTZA. NEGOZIO-EREDUAREN ERADALKETA

LINDAU TEJIDOS - Elorri 5

Lindau Tejidosek 35 urte baino gehiago daramatza bezeroei modarako, eskualdeko jantziarako edo etxeko dekoraziorako kalitatezko oihal ugari eskaintzen. Baina, tokiko merkataritza tradizionala izateaz gain, teknologian aurkitu dute lagunik onena. Beraiek eraiki duten online dendatik eta sare sozialen bidez mundu osoko erabiltzaileekin konektatzea lortu dute. Gainera, bere oihal guztiek etiketan integratutako QR bat dute, bakoitzaren deskribapen eta osiera osoa eskuratu ahal izateko. Gainera, bere negozioan AAre (Adimen Artifiziala) erabilera sartu dute, bai sare sozialetarako bai web orrirako testuak idazteko eta, horrela, emaitza hobek lortzeko. - @lindautejidos

EKIN MERKATARI

CICLOS OLABARRIETA - Errekagane 16

Ciclos Olabarrieta bizikleta denda bat da, komunitatearekin duen konpromisoagatik eta tokiko merkataritzaren dinamizazioan aktiboki parte hartzeagatik nabarmendu dena. Denda horrek ziklo eta osagarri ugari eskaintzen ditu, eta, horrez gain, udalerriko hainbat ekimenetan ere parte hartzen du, tokiko erosketa sustatzeko eta Getxoko bizitasun ekonomiko eta sozialari laguntzeko. Herriko ekitaldietan parte hartzen du, Romo Bizirik saltokien elkarteko kide aktiboa da, eta bizikletekin zerikusia duen edozein ekimenetan ere parte hartzen du. - @olabarrieta.cc



GETXOKO ARIMA

KALA - Basagoiti etorb. 67

Kala Algortako arropa eta osagarrien denda bat da eta 30 urte baino gehiago daramatza bezeroei aholkuak ematen. Baina, tokiko merkataritza izateaz gain, duela urte batzuk erabaki zuten herritarren ongizatearen eta kulturaren alde egitea, egunero mezu inspiratzaileak eta motibaziozkoak jarriz lokalaren kanpoaldean jartzen duten arbel batean, liburuen trukea sustatuz eta erakusleihoan denon eskura jarriz, edota eduki dinamikoa, entretenigarria eta enpatikoa sortuz sare sozialen profilean, errealitatea erakutsiz gustuen eta gorputzen aniztasunari dagokionez. - @kala_algorta

Sari banaketa Batuta akademiako **Irantzu Garamendik** eta **Andoni Calvo** kazetariak gidatu zuten. Eszenografia **N41 Vintage**-rena izan zen eta musika-emanaldia **Leyre Mesak** egin zuen. **La Saladak** eta **Croissanterie Getxok** antolatu zuten cateringa, **Peñasal Fundazioarekin** batera.